

ERLEZAINZA TRADIZIONALA EUSKAL HERRIAN

1- SARRERA

Abendutik martxora bitarte MusealiaK proiektuaren harira Igartubeitin erakusgai izango ditugun piezak erle-hauspoa eta erlauntza dira. Bi objektu hauetatik abiatuak euskal erlezaintza tradizionalak baserriarekin eta ingurunearekin izan duen harreman estua gizarteratzen saiatuko gara.

2- PIEZEN AURKEZPENA

Erle-hauspoa

Erle-hauspoa Josu Tellabide donostiar etnografoak 2015ean Gipuzkoako Foru Aldundiari saldutako kolekzioaren piezatarako bat dugu. Honek Lugaritz auzoko (Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa) Lukainategi baserria du jatorri eta honekin batera erlezaintzari lotutako beste pieza batzuk ere baditu kolekzioak. Objektuaren funtzionamenduari dagokionean, hauspoak haizea ematen dio burdin txapaz egindako ontziari, non erregaia kokatzen den. Honen muturretik aterako da kea eta hau erleak baretu eta mantsoago bihurtzeko erabiliko da abaraskak atera nahi direnean.



Iturria: Gordailua.

Erlauntza

Erlauntza, berriz, Fermin Leizaola etnografoaren bildumakoa da. Donostiarra da ere, eta dohaintzan eman dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari ia 5000 objektu, erakusgai dugun pieza

kolekzio honetakoa izanik. Erratzun (Baztan, Nafarroa) eginiko pieza da, eta izatez ez dago bukatuta, izan ere saskigintzako egituraz eratutako erlategiak buztinez edo simaurrez estaltzen ziren isolagarri moduan. Dena den, eredu paregabea da abarasken prestaketan jartzen zuten denbora eta lana balioesteko, izan ere bazekiten erlauntza bukatutakoan ez zela ikusiko saskigintza-lana.



Iturria: Gordailua.

3- ZERGATIK PIEZA HAUEK MUSEALIAK-EN?

Gure ingurune naturalaren oreka mantentzeko izugarri garrantzitsuak dira animalia hauek. Polinizazioa gauzatzuz landarediaren ugalketa burutzen dute, eta modu honetan, ekosistemaren biziraupenerako ezinbesteko faktore bilakatzen dira. Agente polinizatzaileak diren aldetik, euren desagertzea natura eta nekazar munduaren gainbehera ekarriko luke.

Gaur egun, erleek arriskuen artean gaixotasunak (bakteria, birus edo ondoek sortutakoak), liztor beltza (Asiatik etorritako espezie inbaditzailea eta bertako erle beltzerako kaltegarria), mikrobioak, ornodunak edota artropodoak ditugu. Hauek guztiek erlauntzak edota erlakumeak erasotu eta suntsitu egin ditzakete, hortaz, neurri egokiak hartu behar dira ezinbestean.

Igartubeititik beste arrisku bat plazaratu nahi genuke pieza hauen bidez: memoria eta tradizioaren ahanztura. Erleek beti izan dute baserriarekin harreman estua, eta duela hamarkada batzuk, ia guztietan zituzten erlategiak. Eurek ekoizten dituzten produktuen artean, tradizionalki bi izan dira nagusi euskal baserrietan: eztia eta argizaria.

Iraganean, erleak animalia preziatutzat jotzen ziren, eta askotan familiako kideztzat ere hartzen ziren. Dena den, praktika eta tradizio hauek guztiak atzean geratu dira, eta horregatik, erakusgai jarri ditugun piezak aitzakiatzat hartuta erlezaintza tradizionala eta bere legatua indarrean jartzeko aldarria luzatuko dugu.

4- EZTIA ETA BESTELAKO ERLE PRODUKTUEN GORAKADA:

Erlezaintzaren inguruan pentsatzean segituan datorkigu hitz bat burura: eztia. Eztia beti izan da oso preziatua, eta iraganean, ezaugarri sendagarriak eta medizinalak ere egoitzi zitzaizkion.

Erleek loreetan bildutako nektarrarekin egiten dute eztia. Ezti-sabelean gordeta garraiatzen dute nektar hau erlauntzera, eta iristen direnean aberasketako gelaxketan gordetzen dute. Nektarren osagai nagusiak ura, glukosa, fruktosa, sakarosa eta polen hondarrak dira. Eztia, erleek xurgatu duten nektarraren araberakoa izango da, eta modu honetan, kolore eta zapore ezberdinak izango ditu, barietate desberdinak sortuz: milalore-eztia, akazia-eztia, txilar-eztia, ezkia-eztia edota artea-eztia izango lirateke Euskal Herrian aurki ditzakegun barietateetako batzuk. Inguruneak, klimatologiak, erlauntzaren kokapenak eta bere zaintzak eragina izango dute, hortaz, erleek produzitutako eztian. Eztiz gain, baserriarren artean ere ezti-ura produktu ezagun bat zen, hots, hartzitutako alkoholdun edaria, ura eta eztia nahastuz sortutakoa.

Euskal baserrietan eztiak izan duen presentziaz ari garenean kontutan izan behar dugu azukrea XVII. mendeaz geroztik iritsi zela hauetara, eta ordura arte, eztia zela eskuragarri zuten gozagarri nagusia.

Gaur egun, ordea, erleengandik lortzen dugun produktu eskaintza dibertsifikatu egin da, eta barietate ugari ezkiez gain, hainbat produktu ezberdin aurki ditzakegu:

- Propolia: erretxinaren antzeko sustantzia da, erleek zuhaitzetako izerdia hartu eta hau eraldatuz sortutakoa. Erlauntzetan erabiltzen dute zulo txikiak zigilatzeke.
- Polena: erleek loreetatik jasotzen duten hauts fin hori euren listuarekin, nektarrarekin eta ezti erregosiarekin nahastu eta emaitza modura lortutako granulo itxurako produktua da.

- Erregina-jelea: erleek larbak lehenengo egunetan elikatzeko eta erlama bizi guztian zehar elikatzeko jariatzen duten sustantzia da.

5- ERLAUNTZEN PRESTAKETA, FUNTZIONAMENDUA ETA MANTENUA

Hainbat dira erlauntzen abiapenerako eta biziraupenerako kontutan hartu beharreko faktoreak: kokapena, abarasken prestaketa eta erlauntzen mantenua eta babesa, bestek beste. Jarraian datozen lerroetan hauen inguruan arituko gara.

Erlauntzen kokapena

Orientazioa da askotan lehendabizi aurreikusten den puntua. Gehienetan ekialderanzko norabidea izan ohi dute, eguzki argia ahalik eta gehien aprobetxatuz erlauntzek tenperatura egokia mantendu dezaten. Landaredi aberatseko lekuak aukeratu ohi dira, eta gainera, garrantzitsua da ere haize korronteetatik eta lurreko hezetasunetik babestea, honek erlategia usteldu ez dezan. Honetan ere eragina dute ingurune-faktoreek eta klimatologiak. Askotan baserrian bertan ipintzen ziren erlategiak (barnean edo kanpoan, baserritik gertu), eta baita ere baratzean, estalperen batean edo mendi magalean.

Abarasken prestaketa

Tradizionalki erlauntzak, hots, erleen bizilekuak, material eta forma desberdinetan egin izan dira, nahiz eta ohikoenak egurrean eta jatorri desberdineko landare-zurtoinetan egindakoak izan. Ondorengo paragrafoetan azalduko ditugu Euskal Herrian erabili izan diren erlauntza mota nagusiak.

Egurrez egindako erlauntzak:

Egurrez egindako erlauntzei dagokionez, bi motetakoak aurki ditzakegu: alde batetik zuhaitzaren enborra baliatuz egindakoak, eta bestetik oholez eraikitakoak.

- Enborrean egindako erlauntzak:

Zuhaitzen enbor barnea hustu eta erlauntza modura erabilitakoak dira. Haritza eta gaztaina izaten dira egur erabilienak horretarako. Batzuetan mendian aurkitzen zituzten enbor-hutsak moztu, eta erlekumea eta guzti garraiatzen zituzten baserri ingurura.

Gehienetan, ordea, baserritarrek beraiek sortzen zituzten honako erlauntzak, haritz edo gaztainondo enborrak moztu, barnealdea itxura zilindrikoan hustu eta modu bertikal edo horizontalean ipiniz. Lana errazteko, askotan jada barnealdea usteldurik zuten enborrak erabiltzen zituzten.



Iturria: Orozkoko Museo Etnografikoa.



Iturria: Miel de Málaga.

- Egur-oholez egindako erlauntzak:

Badirudi herri batzuetan mota honetako erlauntzek aurretiaz erabiltzen ziren enbor erlauntzak ordezkatu zituztela edo batera erabili zituztela. Egurrezko lau taula hartu eta elkarren artean iltzez josten zituzten, forma prismatikoa edo kubikoa emanez. Estalki karratu bat jartzen zitzaien eta oholei zuloak egiten zitzaizkien erleak sar eta atera ahal izateko. Normalean bertikalki kokatzen ziren mota honetako erlategiak, nahiz eta batzuetan etzanik ere aurkitu izan diren.



Iturria: Atlas Etnográfico de Vasconia.



Iturria: Gordailua.

Landare-zurtoinetan egindako erlauntzak:

Honelako erlategiak landare-zurtoinak ehunduz lortzen ziren, kono-forma eman arte. Horretarako zumea, kanabera, lastoa edota bestelako landare igokariak erabiltzen ziren, eta behin kono itxurako estruktura lortutakoan simaurrez edota buztinez estaltzen ziren, zuloak estaltze aldera. Egurrez egindako erlauntzen modura, hauek ere bertikalean edo horizontalean koka zitezkeen.



Iturria: Gordailua.

Zuloetan egindako erlauntzak:

Azkenik, badira hain ohikoak ez diren erlauntza batzuk: hormetan egindakoak. Batzuetan apropos eraikitzen zen metro erdi inguru zuen horma bat eta bertan hainbat zulo prestatzen ziren txintxorrak atera ondoren. Leku batzuetan ere etxebizitzetako hormen zuloak aprobetxatu izan dira erlauntza moduan.



Iturria: Miel de Málaga.

Erlauntzen mantenua eta babesa

Erlezainak sarritan bisitatu behar ditu bere erlauntzak, eta urtaroaren arabera, lan desberdinetan aritzen da. Euskal erlezaintza tradizionalan, hauek dira sasoian sasoiko lanak.

Udaberria:

Mugimendu handiko sasoia da, izan ere, erlekumaldia emango da garai honetan. Erregina arrautzak ipintzen hasiko da eta apiriletik aurrera erlamandoak jaioko dira. Erregina berriak izango direnak ere jaio eta zainduko dituzte garai honetan.

Orduan, erregina zaharrak alde egingo du hurrengo erreginari lekua uzteko, eta bere ihesaldian milaka erle-langile eta erlamando eramango ditu berarekin. Beste arrazoiengatik ere gerta daiteke ihesaldia: erlategi batean erle gehiegi daudelako, leku falta dagoelako edota erregina zahartuta dagoelako.

Sasoi honetan erlezaina erne egon beharko da erlekumeak ihes egin eta hauxe harrapatzeko, neguan zehar egon diren galerak berritu edota erlauntza handitzeko. Erlekumea geldiarazi eta hura harrapatzeko erabili izan diren metodoen artean soinua egin eta erleei lurra, ura edota hautsa botatzearena izan da ohikoena. Prozedura honen helburua euria edo ekaitz bat simulatzea izango litzateke, izan ere egoera klimatiko horietan erleek euren hegaldia eteten dute eta ez dira erlauntzetatik asko aldentzen.

Ondoren, zuhaitzean geratzen den erlakumea berriz ere erlauntzetara eramateko, herri batzuetan zuhaitzaren adarra zaku batean sartu eta adarra astintzen dute erlakumea barrura sar dadin. Kaxa egoki bat erabiliz ere harrapa daiteke, erlakumearen antzera itxura karratua duena. Modu honetan erleak euren kabuz sartzen dira kaxara.

Ihes egiten duen erlakumearen jabetza erlezainarena dela kontsideratzen da, honek erlakumea jarraitzen duen heinean. Bestela, erlekume bat zuhaitz edo zuloren batean aurkituz gero, seinale edo marka bat egiten zitzaion aurkitu zuen pertsona horren jabetza zela adierazteko. Gehienetan marka hau gurutze bat izaten zen eta hau errespetatzen ez zuenari salaketa jar zitzaiokeen. Bazen erlekumeak lortzeko beste era bat ere: euren erosketa. Dena den, ez ze inoiz dirutan ordaindu behar, baizik eta gauzaz.

Uda:

Eztia biltzeko garaia da uda. Sasoi honetan hasi eta eskualdearen arabera neguraino ere luzatuko da eginkizun hau, lekuan lekuko landaredi meliferaren ezaugarrien arabera.

Iraganean badirudi erle zuloak suntsitu egingo zituztela eztia lortzeko, horretarako erle guztiak aurretiaz akabatuz. Zulo bat irekitzen zen lurrian, erlauntzaren azpialdea sartzeko adinako diametroa zuena. Bertan sufre-metxa bat pizten zen eta gainean erlauntza ipintzen zitzaion. Trapu zahar batez estali eta modu honetan hiltzen ziren erle guztiak.

Denborak aurrera egin ahala, ordea, ezagutza eta teknologia berriak garatu zituzten, bestelako irtenbide errentagarriagoak aurkitu zituztela. Erleak bizirik mantentzeko, herri batzuetan erlakumea hutsik zegoen beste erlauntza batetara pasatzen zuten. Erlauntza bat bestearen gainean kokatu eta beterik zegoenaren alderdietako bati su ematen zitzaion, erleak berotasun honetatik ihes egin eta hutsik zegoen erlauntzara pasaz.

Behin erlauntzak husturik, eztia ateratzeko ordua zen. Batzuetan abaraskak aurretiaz berotzen ziren, baina beste batzuetan ez, tokian tokiko tenperatura eta nektarraren arabera.

Eztia erauzteko, hauek ziren bi metodo nagusiak:

- Abaraskak laban baten laguntzaz moztu eta iragazki baten gainean ipintzen ziren, zeina terreina baten gainean kokatzen zen. Bi piezak su baxuaren ondora gerturatu ziren eta berotasunari esker eztia urtu, saretik pasa eta edukiontzira isurtzen zen, eta bukatutakoan, oihal batez estaltzen zen.
- Behin abaraskak aterata, eskuez apurtu eta zati hauek metalezko sare baten gainean jartzen ziren, eta aldi berean, sare hauek buztinez egindako edukiontzi batzuen gainean kokatzen ziren. Eguzkiaren berotasun naturalaren ondorioz abaraskak urtzen joaten ziren eta eztia beheko ontzira igarotzen zen. Bukatutakoan oihal batez estaltzen ziren.

Prozesu guztian zehar bere burua babesteko erlezainak hainbat neurri hartuko ditu eta ondorengo tresnak erabiliko ditu, besteak beste:

- Ke hauspoa: erleak baretu eta euren oldarkortasuna murriztuko du.

- Jantzi babeslea: bereziki aurpegia eta eskuak babesteko oihal zahar eta bestelako baliabideak erabili izan dira, esaterako, artilezko galtzerdiak eskularru gisa, aurpegia estaltzen duen sarea edota zapi batez lepoari lotzen zitzaion maskara.

Udazkena:

Erleek neguko atsedenaldirako biltegia prestatuko dute garai honetan. Gainera, borrokak emango dira erlategi barruan, eta erlamandoak kanporatuak izango dira. Azkeneko ezti uzta jasoko da eta erlezaina adi egon beharko da, orduan aztertu beharko baitu zein erlauntzek duten elikagai gehiago eta zeintzuk gutxiago, eta hortaz, azken hauetan jarriko du arreta. Erleei negua igarotzeko haina ezti utziko zaie.

Negua:

Negua aktibitate gutxiko sasoi da, lasaitasunerako garaia. Erreginak ez du arrautzik erruten eta erleak aberasken barnean geratuko dira ezti janaz.

Neguan eta bereziki hotz handia egiten zuenetan, erlezain batzuek erlauntzak elikatze ohitura zuten, erleen heriotza ekidin ahal izateko. Erlategien ondoan azukre koxkorak, sagar konpota edota erdi usteldurik zeuden fruituak jartzen zizkieten, eta sagardo garaia zenean, sagarra prentsatu eta bertan geratutako sagar patsa ere.

6- ARGIZARIA: BERE SINBOLOGIA EUSKAL KULTURAN

Eztiaz eta aipatutako gainontzeko produktuez gain, baserritarren artean oso preziatua zen beste etekin bat argizaria zen. Hauxe lortzeko metodo eta bide desberdinak zeuden, baina erabiliena hurrengo hau izaten zen: behin ezti aterata, geratzen diren abaraska zatiak irakiten zegoen uretan sartzen ziren, urtu arte. Ondoren nahasketa hau oihal batetara isurtzen zen, eta estutzean, oihaletik zehar igarotzen ziren ura eta argizaria. Beste ontzi batetara igarotzen ziren eta bertan, euren dentsitate desberdinengatik, banandu eta bereizi egiten ziren. Azken pausoa argizaria koilara edo bestelako erramintekin jasotzea zen.

Alderdi teknikoak alde batera utzita, garrantzitsua da azpimarratzea kriseiluak eta kandelak gaueko argiztapenerako modu bakarra ziren garai haietan argizari produkzioa ezinbestekoa zela. Ukenduak eta xaboiak egiteko, altzairuak eta lurrak ezkoztatzeko eta egurrak eta larruak inpermeabilizatzeko ere erabiltzen zen.

Gainera, hileta-errituekin erlazionaturiko pieza baten sorkuntzarako ezinbestekoa da argizaria: argizaiola. Argizaiola egurrean egindako tailu bat da (normalean haritz edo pago-zurez egina), zeinak forma antropomorfikoa duen. Bere inguruan kandela luze eta mehe bat biltzen zaio erdialdeko zatian, kiribilean harrapatuta, eta hau kontsumitu ahala bueltak ematen zaizkio argizaiolari.



Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia.

Familiari, etxeari, defuntuei eta euren oroipenari lotutako objektu bat den heinean, bere funtzio sinbolikoa etxeko sua transmititzea da. Hileta-errituak argizatzeko erabiltzen zen: hilobietan, hileta-elizkizunetan, zendutakoaren omenezko eliz-ospakizunetan, Santu Guztien Egunean eta Hilan Egunean. Senideek kandela piztu eta eukaristia guztian pizturik mantentzen zuten, horretarako egurrezko tailuari birak emanez sugarra itzali ez zedin.

Halaber, aipatzekoa da erleen alderdi sinbolikoa, euskaldunen artean animalia sakratutzat hartzen baita. Tradizio eta sinesmen ugari daude euren inguruan, zeinak, nahiz eta lekuan lekuko ñabardurak izan, denek mantentzen dituzten ezaugarri paraleloak.

XX. mendeko lehen hamarkadetara arte (leku batzuetan, baita beranduago ere) mantendu den hileta-tradizio esanguratsuenetako bat etxekoren bat hildakoan berehala erleei komunikatzearena zen. Leku batzuetan etxekojauna edo etxekoandreaken heriotza soilik komunikatzen zitzairen, baina besteetan baserriko edozein kiderena ere. Honelakoetan, alarguna, baserriaren oinordekoa, senideren bat, bizilaguna edota lagunaren bat izaten zen erleei abisua ematearen arduraduna. Oinordekoa izaten zenean, honek bere burua aurkezten zuen erleen aurrean, esanez aurrerantzean bera izango zela jaun edo andere, hortaz erlauntzen jabe, eta erlauntzak behar bezala zaintzen jarraitzeko konpromisoa hartuz:

orain ni nagusi. Zenbait lekutan diote ezezagun batek eginez gero, erleek eraso egingo lioketela. Joera honen atzean badirudi bi arrazoi nagusi daudela: alde batetik, erleak jakinarazi ezean hilko ziren sinestea, eta bestetik, abisatuz gero argizari gehiago egingo zutenaren ustea.

Baserriko senidearen heriotzaren berri ematearen arduraduna erlauntzetara hurbildu eta honakoa esaten zien: *nagusia hil da* edota *etxeko andrea hil da*. Abisatzeaz gain argizari gehiago eskatu nahi zuenean, aldiz, honakoa esaten zuen: *erletxoak, erletxoak, egizue argizaria*. *Nagusia hil da, ta behar da elizan argia*. Bi kasuetan errespetuz zaindu behar dira erleak, intonazio suabe eta maitekorra erabiliz eta betiere zukaz mintzatuz, “anyere ederrak” (andere ederrak) deitzailea erabiliz.



Iturria: Etniker Euskalerria.

Kasu batzuetan abisuaren aurretik eskuaz, atzamarrez edota makilaz erlauntzak modu leunean kolpatzen ziren. Kolpeengatik erleak aztoratu eta euren burrunba entzutean, abisua luzatzen zitzairen. Beste batzuetan oihal beltzez estaltzen ziren erlauntzak (betiere zulo bat eginez erleak sar-atera zitezzen), begizta beltz bat ipintzen zitzairen edota hildakoaren jantziren bat ipintzen zen erlauntzen ondoan zintzilik. Ekitaldi honi *lutoa jantzi* esaten zitzaion, eta egin ezean, erleak hil egiten zirela esaten zen. Dena dela, praktika guztiek amankomunean dutena da esaldi edo estrofa erritual baten errezitatzea.

Aditu batzuen ustez, erritu hauen jatorria zera litzateke, kristautasunaren aurreko gizaki primitiboak psikoponpo edo arima garraiatzailatzat jotzen zituztela erleak, hortaz, arima berri baten etorrera iragarri behar zitzairen, haiek bidera zezaten. Euskaldunen artean uste zen norbait hiltzen zenean bere arima mundu materialean geratzen zela denbora batez, ondoren

betiko bizitzara igarotzeko. Bidai hori erleek ahalbidetzen zuten, eta beste kasu ezagun batzuetan ere etxeko leihoren bat ireki edo teilatuko teila bat kentzen zen arimak bere trantsizioa egin zezan.

Erleez gain, badaude dokumentatuta etxeko beste animalia batzuei heriotzaren berri emateko kasuak. Nolanahi ere, ez da oso ohitura praktikatua, izan ere gainontzeko animaliek ez dute erleek duten kutsu sinbolikoa, ezta praktikoa ere (argizaririk egiten ez duten heinean). Horregatik kontsideratzen da erlea, baserriko gainontzeko animalien artean, kategoria altuagokoa, eta bertatik dator euren gaitasuna jotzeko aparteko modua.

Beren garrantzia eta egunerokotasunean izan zuten presentzia honekin loturik, hainbat esaera herrikoi aurki ditzakegu euskal tradizioan. Hona hemen hauetako batzuk:

- *Erleak nagusi bakarra.*
- *Erlea lanean, lorea danean.*
- *Erle uxatuak ez tirik ez.*
- *Ezti nahi duenak erleak jasan bitza.*
- *Hobe da ahurtara bat erle, zakutara bat uli baino.*
- *Ezti bilakatzen dena uliek jaten dute.*
- *Erleak ezti aurretik eta eztena atzetik. (Honela ere bai: erlea gozoa aurretik, minkorra atzetik).*
- *Apirileko erlea niretzat, maiatzekoa besteentzat.*
- *Erlea eduki gura duenak, martxoan ezti ateratzen du; ezti gura duenak, azaroan.*
- *Elur asko den urtean, garia; erle asko dugunean, ezti.*
- *Ez kurrik ez den urtean negua ezti.*
- *Beorretan eta erleetan diru asko ez jarri. (Honela ere bai: erleekin eta beorrekin, interes dena ez arriskuan jarri.)*

7- ERLEZAINZAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN ETA GAUR EGUNGO EGOERA

Erleak aldaketa sakonak jasan ditu bere ustiapen-moduan. Abaraska tradizionalak eta hauek lantzeko teknikak modernoagoak diren beste batzuekin ordezkatu dira, eta honek errotik aldatu du landa eremuen eta erleen arteko harremana.

Neurriak hartu behar izan dira erlauntzen biziraupena kolokan jartzen duten erronka eta arriskuei aurre egiteko, eta pixkanaka, erlezaintza zabaldu eta modernizatu egin da. Dena den, erle beltzaren, hau da, bertako erlearen banaketa-eremua nabarmen murrizten eta zatitzen joan da azken urte hauetan, hazkuntza-teknika berriak eta bestelako erle espezien inportazioa eman baita, kolonien arteko hibridazioa emanez. Noski, erle beltzaren garapenerako aberasgarria ez den hibridazioa.

Profesional eta afizionatuek geroz eta informazio sakonagoz zaintzen dituzte erleak: ikerketa, liburu, informazio eta ezagutza handiagoa eskuratu da animalia txiki hauen inguruan, eta transmisio oralak ere eragina izan du honetan. Hala eta guztiz ere, horrek ez du lortu herritarrek iraganean erleekiko izan zuten lotura mantentzea. Teknika tradizionalak, lanabesak, lan egiteko moduak. ohiturak, sinesmenak eta terminologia ere desagertu dira hamarkada gutxiren buruan, eta esan dezakegu nolabaiteko deserrotzea egon dela. Deserrotze honek gure gizartearen eta tradizioaren artean egon den hausturan du muina, eta duela 70 urte gure ondare kulturalaren zati garrantzitsua zena gaur egun arrotz egiten zaigu. Adinez nagusienak direnetako batzuek oraindik ere gogoan dituzte azaldutako praktikak, baina jada desagertu dira ia guztiak.

8- BIBLIOGRAFIA

- Etniker Euskalerrria. (2000). *Atlas etnográfico de Vasconia: Ganadería y pastoreo en Vasconia*. 11. bolumena. Bizkaia: Instituto Labayru.
- Gárate Arriola, J. (1975). El aviso a las colmenas de la muerte de su dueño. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*. 19. zk. 5-11 orr.
- Garmendia Larrañaga, J. (1976). De etnografía vasca (cuatro ensayos). Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Auzkeren Kutxa Probintziala.
- Garmendia Larrañaga, J. (1991). *Costumbres y ritos funerarios en el País Vasco: del siglo XVI a nuestros días*. Donostia-San Sebastián: Txertoa.